



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2023ko azaroaren 13a

33. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-23/MOC-00062. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kirolean egoera sexitei aurre egiteko laguntza-zerbitzua sor dezan. Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak aurkeztu du (3. or.).
- 11-23/MOC-00063. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita konektibitate publikoaren aldeko apustua egiten jarrai dezan erreferentziako zentroetan. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (4. or.).
- 11-23/MOC-00064. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita politika fiskal ardurtsua ezartzen jarrai dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu du (5. or.).
- 11-23/MOC-00065. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kirolean berdintasuna ziurtatzeko plan bat taxutu dezan. Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak aurkeztu du (6. or.).
- 11-23/DEC-00031. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Diabetesaren Mundu Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsi du (7. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-23/PES-00170. Galdera, Nafarroan minbizia artatzeko neurriei buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (8. or.).
- 11-23/PES-00171. Galdera, jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea aldatzen duen uztailaren 1eko 21/2022 Foru Lege betetzeari buruzkoa. Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egin du (9. or.).
- 11-23/PES-00172. Galdera, Iruñean emakumearen aurkako indarkeriaren arloko eskumena izanen lukeen bigarren epaitegi bat sortzeari buruzkoa. Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egin du (10. or.).
- 11-23/PES-00173. Galdera, Nafarroan errepide bidezko hiriarteko garraio publikoaren emakida berri guztiei buruz erabiltzaileek egiten duten balorazioari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (11. or.).
- 11-23/PES-00174. Galdera, garraio publikoaren emakida berrietan bidaiari kopurua igotzeari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (11. or.).

- 11-23/PES-00175. Galdera, ibilgailu gidaridunen errentamenduaren bidezko bidaiarien garraio-zerbitzuak emateko baldintzak ezartzen dituen foru-dekretuaren proiektuari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (12. or.).
- 11-23/PES-00176. Galdera, zahar-etxeetan osasun-laguntzaren arloan atzemandako irregulartasunei eta gabeziei buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (12. or.).
- 11-23/PES-00177. Galdera, zahar-etxeetan osasun-laguntzaren arloan atzemandako irregulartasunei eta gabeziei buruzkoa. Javier Arza Porras jaunak egin du (14. or.).
- 11-23/PES-00178. Galdera, AUNako proiektu pilotuarekin sortutako kontratuei buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (15. or.).
- 11-23/PES-00179. Galdera, AUNako proiektuaren baitan errenta bermatuaren hartzaile diren pertsonen zuzendutako proiektu pilotuko hautaprosesuari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (15. or.).
- 11-23/PES-00180. Galdera, Nafarroako Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak urriaren 31ko agerraldian egindako adierazpeni buruzkoa. Ángel Ansa EcheGARAY jaunak egin du (16. or.).
- 11-23/PES-00181. Galdera, Tokiko Gazte Politika Koordinatzeko Batzordeari buruzkoa. Ángel Ansa EcheGARAY jaunak egin du (17. or.).
- 11-23/PES-00182. Galdera, Gazteriari buruzko Foru Lege berriari buruzkoa. Ángel Ansa EcheGARAY jaunak egin du (17. or.).
- 11-23/PES-00183. Galdera, Baztango gazteen aterpetxeko pumptrack-pistari buruzkoa. Ángel Ansa EcheGARAY jaunak egin du (18. or.).
- 11-23/PES-00184. Galdera, Altsasuko gazteen aterpetxeari buruzkoa. Ángel Ansa EcheGARAY jaunak egin du (18. or.).
- 11-23/PES-00185. Galdera, gazteriaren arloko politiken garapena finantzatzeari buruzkoa. Ángel Ansa EcheGARAY jaunak egin du (19. or.).
- 11-23/PES-00186. Galdera, Gazteriako zuzendariorde nagusiaren postuari buruzkoa. Ángel Ansa EcheGARAY jaunak egin du (19. or.).
- 11-23/PES-00187. Galdera, COVID-19aren osasun-krisiak eragindako inpaktuari erantzute aldera langile autonomo laguntzaileei emandako laguntzei buruzkoa. Ana María Elizalde Urmeneta andreak egin du (20. or.).
- 11-23/PES-00188. Galdera, proiektu bat foru erkidegoaren interesekoa dela aitortzeko orduan Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak darabiltzan irizpideei buruzkoa. Ana María Elizalde Urmeneta andreak egin du (21. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Foru parlamentariaren ordainsariei buruzko arauak aldatzea (22. or.).
- 11-23/ELC-00010. Nafarroako Parlamentuak Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikorako izendatu beharreko bi kide hautatzea. Hautagaitzak aldarrikatzea (23. or.).

J SAILA:**Ponentziak:**

- 11-23/PON-00004. Ponentzia bat sortzeko proposamena, lanaldien eta ordutegien arrazionalizazio-politikak bultzatzeko denboraren erabilerak aztertzeko. Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu-ko Batzordeak ezetsi du (24. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-23/MOC-00062. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita kirolean egoera sexistei aurre egiteko laguntza-zerbitzua sordezan

BLANCA ISABEL REGÚLEZ ÁLVAREZ ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita kirolean egoera sexistei aurre egiteko laguntza-zerbitzua sordezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Legebiltzar honetako Osoko Bilkuran eztabaidatua izateko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premia-tzen da arreta-zerbitzu bat era dezan, kirolgintzako egoera sexistei aurre egitekoa.

Zioen azalpena.

Emakumezkoen Futbol Mundialaren ospakizunean Espainiako emakumezkoen futbol-selekzioan gertatu zenak ikusarazi eta mahai mediatiko eta sozialaren gainean jarri ditu kirolgintzan dauden abusu, sexu-jazarpen eta sexuagatiko jazarpeneko egoerak, edozein dela ere kirolaren esparrua, diziplina eta kategoria.

Ez da zilegi kirolgintzaren baitako egoera horiek gertatzea, eta are gutxiago horrelakorik ametitzea. Nafarroak badauka kirol alorrean jarduketako protokolo bat, haurtzaroko eta nerabezaroko indarkeriari aurre egitekoa, Nafarroako Kirolaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen martxoaren 8ko 84/2023 Ebazpenaren bidez ezarria, zeinak onetsi baitzuen "Nafarroako Foru Komunitatean kirolgintza eta aisialdi esparruetan haurtzaro eta nerabezaroko indarkeriari aurre egiteko jarduketako protokoloa".

Protokolo hau kirol-entitateek egindako jarduerari guztiari aplikatzekoa da, barnekoari nahiz kanpokoari, bai eta jarduera horretako kide diren pertsona guztiei ere: kirolariei, zuzendaritza-langileei, teknikariei eta administrazio eta zerbitzuetako langileei, zein ere den entitatearekin duten lotura-maila, lan-harremana nahiz kontratuaren tipologia. Protokoloak Babeserako Ordezkararen figura eta eginkizunak ezartzen ditu.

Protokolo hori haur eta nerabeei bakarrik zuzentzen zaie, eta kanpoan uzten ditu eremu hain maskulinizatu batean emakume izateagatik edonolako indarkeria jasan dezaketen emakumezko kirolariak.

Egoera hori horrela, beharrezkotzat jotzen dugu Nafarroako Kirolaren Institutuan bildutako kirolgintzan sexu-abusu eta -jazarpenari eta sexuagatiko jazarpenari erantzuteko arreta-zerbitzu bat sortzea.

Laguntza-gune anonimo eta doako bat eratzeko beharra dago, kirolzale diren Nafarroako haurrei, nerabeei eta emakumei zuzendua, non telefono bidez, posta elektronikoki bidez edo Whatsappez laguntza eta aholkularitza eskatu ahalko baitute jasaten dituzten abusu- eta jazarpen-egoeren aurrean.

Zerbitzu horrek sexu-abusu eta -jazarpeneko egoerei eta/edo sexuagatiko jazarpenekoei aurre egin beharrean suertatzen diren kirolzaleei arreta integrala eskaintzeko moduan egon behar du, konfiantzazko gune bat alegia, non zaindu eginen baitira egoera horietan dauden pertsonak, haiei entzunez, prozesuan zehar lagun eginez, eta haien egoerari modu indibidualizatuan erantzute aldera baliabide publiko profesionalak bideratuz, eta batez ere pertsonari beti utziz bere erabakiak har ditzan bere etorkizunari buruz eta salaturiko egoera amaitzeko egin beharreko urratsei buruz.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Bakarra. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Kirolaren Institutuaren barrenean arreta zerbitzu anonimo eta doako bat era dezan, kirolgintzan sexu-abusu eta -jazarpenetik eta sexuagatiko jazarpenetik babestekoa, Nafarroako haur, nerabe eta emakume kirolzaleei zuzendua, non telefonoz, posta elektronikoz nahiz WhatsAppez laguntza eta aholkularitza eskatzen ahalko baitute jasaten dituzten abusu- eta jazarpen-egoeren aurrean.

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Blanca Isabel Regúlez Álvarez

11-23/MOC-00063. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita konektibitate publikoaren aldeko apustua egiten jarrai dezan erreferentziako zentroetan

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita konektibitate publikoaren aldeko apustua egiten jarrai dezan erreferentziako zentroetan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun Ramón Alzórriz Goñik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da konektibitate

publikoaren aldeko apustua egiten jarrai dezan erreferentziako zentroetan. Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak egingen du mozioaren jarraipena.

Zioen azalpena.

Gaur egun, banda zabalaren bidezko konektibitate-zerbitzuetarako sarbidea funtsezkoa da lurralde bateko biztanleen garapen sozial eta ekonomikorako, bai eta enpresa-sarearen nahiz administrazio publikoen garapenerako ere. Sektorre guztiak digitalizatu direnez eta aisia-zerbitzu digitalak hazi direnez, herritarrentzat oinarri-oinarizkoa da banda zabala baliatu ahal izatea.

Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Banda Zabalaren lehen eta bigarren planak taxutu zituen; azken lau urteotako lanari segida ematen diote, eta giltzarri dira Nafarroako 2030erako Estrategia Digitalean ezarritako helburuak lortzeko, lortuz gero ahalbidetuko dutenak sarbide digitalaren arloan dagoen lurralde-arrakala desagertzea egungo sarearen kapilaritatea hobetzeari esker, 2030ean segundoko giga bateko konexioa eskaini ahal izanen baita foru erkidegoko pertsona eta enpresa guztiei.

Nafarroako Gobernuaren estrategiak lau ardatz ditu: lurraldearen egituraketa, herritarrak, administrazio publikoa eta enpresa-sarea. Halatan,

apustua da 1.000 biztanletik gorako herrietako biztanleen % 100 egon ahal izatea banda zabal ultralasterreko konektatzeko modua, eta 200dik 1.000 biztanlera bitartekoek banda zabal ultralasterreko sarbide-sareen estaldura izatea, gutxienez ere 100 megakoa, eta Nafarroa osoak izatea banda zabaleko sarbide-sareen estaldura, gutxienez ere 30 megakoa.

Orobat lortu nahi da industrialdeek eta parke teknologikoek banda zabal lasterrerrako sarbidea izatea (gutxienez ere 30 Mbps), eta % 90ek banda zabal ultralasterreko (gutxienez ere 100 Mbps). Gainera, erkidegoan interes turistikoa duten herri edo toki guztiek banda zabal azkarreko sareetarako konektibitatea, gutxienez ere 30 megakoa, izatea lortu nahi da, eta zentro teknologiko guztiek banda zabal ultralasterreko sarbidea izatea ere.

Eta Administrazio Publikoari dagokionez, apustua da egoitzek gutxienez ere 30 megako konektibitatea izatea 2024an.

Hori guztia gorabehera, ahalegina egiten jarraitu beharra dago, Banda Zabalaran II. Planean eta Nafarroako 2030eko Estrategia Digitalean ezarri-

tako helburua lortzeko eta, bereziki, azpimarra berariaz jarri behar da erreferentziako zentro publikoetan, horiek baitira oinarritzko zerbitzu asistentzial eta sozialetara sartzea ahalbidetzen dutenak; esaterako, ospitaleak, osasun etxeak, ikastetxeak eta prestakuntza-zentroak –liburutegiak barne– eta zerbitzu publikoak ematen dituzten beste zentro batzuk –asistentzialak, sozialak edo berdintasunekoak–, bai eta I+G zentro publikoak ere.

Azaldutako guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du konektibitate publikoaren aldeko apustua egiten jarrai dezan erreferentziako zentroetan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du foru erkidegoak erreferentziako eskualde izaten jarrai dezan banda zabal ultralasterreko konexioari dagokionez.

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

11-23/MOC-00064. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita politika fiskal arduratsua ezartzen jarrai dezan

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea . Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita politika fiskal arduratsua ezartzen jarrai dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun Ramón Alzórriz Goñik, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da politika fiskal arduratsua ezartzen jarrai dezan.

Zioen azalpena.

Gure aburuz, politika fiskala funtsezko tresna da ongizatearen estatua sostengatzea eta indartzea ahalbidetzen duten baliabideak lortzeko, elkartasunean oinarrituta, herritarren bizi-kalitatea areagotzea ahalbidetuko duena eta justizia soziala lortzen lagunduko duena. Politika fiskalak, halaber, gizarte demokratiko, plural eta kohesionatu baten –alegia, Nafarroaren– aurrerabide ekonomikoa bultzatzeko balio behar du.

Hitzarmen ekonomikoan ezarritako esparrua erreferentziatzat hartuta, errenta birbanatzen zuzenean laguntzen duen eta politika fiskalak abian jartzea eta garatzea ahalbidetzen duen sistema fiskala aldeztu dugula berresten dugu. Hor-taz, sistema fiskal hau justizian, efizientzian eta progresibitatean oinarritu behar da, errenta zaur-garrien gaineko zama fiskala areagotu gabe.

Horregatik, Nafarroak gure eskumenekoak diren zergen bidez lortutako diru-sarrerak ongizatearen sistema publikoa mantentzera bideratu behar dituelako premisapean, uste dugu beharrezkoa dela tributu-sistema egonkor, beregain eta progresibo bat edukitzea, eta ahalegin fiskala nafar bakoitzaren ahalmen ekonomikoaren arabera ezartzea, errenta handiek eta ondare handiek behar bezalako ekarpena egiten dutela bermatuta, bai eta enpresek sistemari behar bezalako ekarpena egiten dutela ere.

Halatan, aldeztu dugun sistema fiskala ez litzateke soilik izanen diru-bilketarako tresna bat, ezpada aberastasuna hobeki banatzea ahalbidetuko duen tresna bat eta herritarren aukera-berdintasunaren printzipioa bermatzen duena, gure

erkidegoan kohesio soziala, aukera-berdintasuna eta garapen ekonomiko hobetzeko xedez.

Gainera, kudeaketa fiskal arduratsu eta orekatuaren ereduari esker, Nafarroako Foru Komunitatea izan da azken bi legegintzaldiotan bere zor publikoa gehien murriztu duen erkidegoa. Horregatik, zorrotasuna eta jasangarritasuna behar-beharrezkoak dira etorkizunean hazkunde ekonomikoa ez hipotekatzeko eta bateragarriak izan daitezkeen enplegua sortzea eta politika sozialen nahikotasunaren bermea.

Azaldutako guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du politika fiskal arduratsu, progresibo, beregain, orekatu eta egonkorra ezartzen jarrai dezan, zerbitzu publikoak mantendu eta hobetzea, aukera-berdintasuna eta Nafarroako Foru Komunitatearen garepen ekonomiko eta soziala ahalbidetuko duena.

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

11-23/MOC-00065. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kirolean berdintasuna ziurtatzeko plan bat taxutu dezan

FRANCISCO JAVIER TRIGO OUBIÑA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita kirolean berdintasuna ziurtatzeko plan bat taxutu dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako Javier Trigo Oubiña jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko: Nafarroako Gobernua premiatzen da kirolean berdintasuna ziurtatzeko plan bat taxutu dezan.

Zioen azalpena.

Irailaren 26an, Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak batzorde parlamentarioan azaldu zituen bere departamentuak legegintzaldi honetarako darabiltzan ildo estrategikoak.

Kirolari dagokionez iragarri zuen emakumezkoen kirola bultzatzea dela bere helburu nagusietako bat. Eta UPNk lehentasunez jotzen duen helburu bat da, zeren, agerikoa den arren emakumeek arlo guztietan egindako aurrerabidea,

emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunak oztopoak gainditu behar baititu oraindik ere, egiazko berdintasuna eragozten dutenak.

Izan ere, kirolari ez zaio arrotz errealitate hori. Arlo horretan egin diren azken azterlanetako datuek erakusten dute oraindik ere badirela alde handiak emakumeek kirolaren arloetan duten parte-hartzeari eta ordezkartzari dagokienez.

Nafarroari ere ez zaio arrotz errealitate hori, eta, nahiz eta foru erkidegoak denbora asko darman lanean kirolean berdintasuna lortzearen alde, beharrezkoa da plan bat abian jartzea, ekintza zehatzak abiarazteko kirola txikitari abandonatzearen arrakala gainditzeko eta emakume guztiei kirola inguru seguru batean egiteko aukera ziurta-

tzeko, emakumeak kirolean parte-hartzea maila guztietan areagotzeko eta gizonek dauzkaten baldintza beretan iritsi ahal izateko goi-mailara.

Bai Europar Batasuna –funtsak emanaz– bai Kirol Kontseilu Gorena –kanpainak eginez– kirolaren arloko entitateak eta erakundeak akuilatzen ari dira kirol berdintasunezko eta inklusiboa bultzatzeko lan egin dezaten.

Horregatik guztiagatik aurkezten dugu honako erabaki proposamen hau: Nafarroako Gobernua Espainiako kirolaren buru jar dadin eta kirolean berdintasuna ziurtatzeko plan bat taxutu dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Javier Trigo Oubiña

11-23/DEC-00031. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Diabetesaren Mundu Egunaren ospakizunarekin

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2023ko azaroaren 6an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du azaroaren 14an ospatzen den Diabetesaren Mundu Egunarekin. Eta ekitaldi bat egingen du egun horretan, 13:00etan, ANADIrekin batera.

2. Nafarroako Parlamentuak bere fatxada urdinez argizatuko du azaroaren 14an.

3. Nafarroako Parlamentuak erakunde eskudunak premiatzen ditu diabetes gaixotasunari aurrea hartzeko politikak sustatzen jarrai dezaten.

4. Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du gaixoen eta profesionalen diabetes arloko prestakuntza eta hezkuntza areagotzeko neurriak sustatzea.

5. Nafarroako Parlamentuak uste du beharrezkoa dela diabetesaren ikusgaitasuna sustatzea, eta aldeztu egiten ditu ANADIk Diabetesaren Mundu Eguna dela-eta antolatu dituen jarduerak".

Iruñean, 2023ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-23/PES-00170. Galdera, Nafarroan minbizia artatzeko neurriei buruzkoa*LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Nafarroan minbizia artatzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2022ko otsailean, Nafarroako Parlamentuak Navarra Sumaren mozio bat onetsi zuen, berriz ere nabarmentzen zituena 2019ko abenduan onetsitako Navarra Sumaren beste mozio batek aipatzen zituen puntuak, Nafarroan Minbiziari aurre egiteko Arreta Plan Estrategiko bat taxutzeari buruzkoak. Hori dela eta, puntu horietako bakoitzaren egungo garapen-maila zein den jakin nahi dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiazten du berreskura dezan bularreko minbiziaren eta koloneko minbiziaren detekzio goiztiarreko programetan azken bi urteetan izandako atzerapena, gehienez ere sei hilabeteko epean.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiazten du tresnak eta baliabideak eskaini ditzan Nafarroan minbizia dutenei arreta integratu eta integrala bermatzeko. Nafarroako Parlamentua. Sarrera-erregistroa 384, 27-01-2022, ordua 14:07, 10-22/MOC-00008.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiazten du Nafarroan gaixo onkologikoendako arreta jarraitua ezar dezan, gehienez ere bi hilabeteko epean.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiazten du Nafarroan minbizi hereditarioa duten pertsonen arreta goiztiarreko programa bat prestatu eta ezar dezan, gehienez ere hiru hilabeteko epean.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiazten du zerbitzuen zorroa ezar dezan bermatze aldera minbizia dutenendako medikuntza pertsonalizatua abiarazten dela, gehienez ere hiru hilabeteko epean.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiazten du zorro osagarrian sar ditzan tratamendu onkologikoaren ondoriozko ahohortzetako arreta eta prestazioak, gehienez ere sei hilabeteko epean.

7. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiazten du arautu dezan dieta eta egonaldirako prestazioen igoera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesionalen bidalita Osasun Sistema Nazionaleko ospitaleetan kontsulta jaso edo ospitaleratu behar duten haur nafarren bi guraso edo seniderendako, gehienez ere hiru hilabeteko epean.

8. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiazten du zaintzaileari laguntza emateko programa bat prestatu eta abiaraz dezan, gehienez ere sei hilabeteko epean.

9. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiazten du minbizia duten gaixoen arreta integratua emateko prozesuen ebaluazio

integralerako sistema bat prestatu eta abiaraz dezan, gehienez sei hilabeteko epean.

Iruñean, 2023ko urriaren 29an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-23/PES-00171. Galdera, jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea aldatzen duen uztailaren 1eko 21/2022 Foru Lege betetzeari buruzkoa

ARANZAZU IZURDIAGA OSINAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egindako galdera, jokoari buruzko abenduaren 14ko 16/2006 Foru Legea aldatzen duen uztailaren 1eko 21/2022 Foru Lege betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko eldun Arantxa Izurdiaga Osinagak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako idatzizko galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak erantzun dezan:

2022ko uztailaren 15ean jarri zen indarrean 21/2022 Foru Legea, Jokoaren 16/2006 Foru Legea aldatzekoa, zeinak aldaketak eta betebeharrak sartzen baititu bai enpresentzat bai Administrazioarentzat.

Zer neurri ezarri ditu Nafarroako Gobernuak 21/2022 Foru Legean sartutako aldaketak betetzen direla bermatzeko?

Iruñean, 2023ko urriaren 30an

Foru parlamentaria: Arantxa Izurdiaga Osinaga

11-23/PES-00172. Galdera, Iruñean emakumearen aurkako indarkeriaren arloko eskumena izanen lukeen bigarren epaitegi bat sortzeari buruzkoa

ARANZAZU IZURDIAGA OSINAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egindako galdera, Iruñean emakumearen aurkako indarkeriaren arloko eskumena izanen lukeen bigarren epaitegi bat sortzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko ele-dun Arantxa Izurdiaga Osinagak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako idatzizko galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak erantzun dezan:

2023-2024 urte judizialaren hasierako ekitaldian, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko presidentek iragarri zuen emakumeen aurkako indarkeriaren arloan eskumena duen bigarren epaitegi bat sortuko dela Iruñean, Agoizko epaitegiak aztertzeko dituen emakumeen aurkako indarkeria kasuak bere gain hartuko dituena.

Horregatik guztiagatik, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzuteko:

- Noiz sortuko da Iruñean emakumeen aurkako indarkeriaren arloan eskumena duen bigarren epaitegia?

- Nola eragiten dio bigarren epaitegi honen sorrerak Agoizko epaitegiari?

- Zergatik lekualdatuko da emakumeen aurkako indarkeriaren arloan eskumena duen epaitegia Agoizko barruti judizialetik Iruñera?

- Egin al da txosten juridikorik eskumen-eremu bat kasuko eskualdetik ateratzearen legezkotasunari buruz?

- Zer ondorio atera ditu txosten horrek?

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Arantxa Izurdiaga Osinaga

11-23/PES-00173. Galdera, Nafarroan errepide bidezko hiriarteko garraio publikoaren emakida berri guztiei buruz erabiltzaileek egiten duten balorazioari buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, Nafarroan errepide bidezko hiriarteko garraio publikoaren emakida berri guztiei buruz erabiltzaileek egiten duten balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko talde parlamentarioko eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zer balorazio egiten dute erabiltzaileek Nafarroako errepide bidezko hiriarteko garraio publikoaren emakida berri guztiez?

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-23/PES-00174. Galdera, garraio publikoaren emakida berrietan bidaiari kopurua igotzeari buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, garraio publikoaren emakida berrietan bidaiari kopurua igotzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko talde parlamentarioko eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zein izan da, kasua bada, errepideko Nafarroako hiriarteko garraio publikoaren emakida berrien gehikuntza?

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-23/PES-00175. Galdera, ibilgailu gidaridunen errentamenduaren bidezko bidaiarien garraio-zerbitzuak emateko baldintzak ezartzen dituen foru-dekretuaren proiektuari buruzkoa

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, ibilgailu gidaridunen errentamenduaren bidezko bidaiarien garraio-zerbitzuak emateko baldintzak ezartzen dituen foru-dekretuaren proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko talde parlamentarioko eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zergatik ez da onartzen Nafarroako Foru Komunitatean ibilgailu gidaridunen errentamenduaren bidezko bidaiarien garraio-zerbitzuak emateko baldintzak ezartzen dituen foru-dekretuaren proiektua?

Iruñean, 2023ko urriaren 30ean

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

11-23/PES-00176. Galdera, zahar-etxeetan osasun-laguntzaren arloan atzemandako irregulartasunei eta gabeziei buruzkoa

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, zahar-etxeetan osasun-laguntzaren arloan atzemandako irregulartasunei eta gabeziei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

92/2020 Foru Dekretuak, batetik, Nafarroako Foru Komunitateko gizarte zerbitzuen sistemaren barruan, egoitza zerbitzuen, eguneko zerbitzuen eta zerbitzu anbulatorioen funtzionamendua arautzen du adinekoen, desgaitasuna dutenen, eritasun mentala dutenen, adingabeen arretaren eta gizarte-inklusioaren arloetan, eta bestetik, baime-nen, aurretiazko komunikazioen eta homologazioen araubidea. Eta 46. artikuluan –Ikuskapena–, honako hau dio:

1. Foru dekretu honetan ezarritakoa betetzen dela bermatzeaz gainera, aurreko tituluetan adie-

razitako jarduketekin batera, Nafarroako gizarte zerbitzuetako ikuskatzaileak uneoro kontrol lanak, aholkulari lanak, eskaerak eta zehapen prozedurak irekitzeko proposamenak eginen ditu, hala ofizioz, bere urteko planen arabera, nola alderdi batek eskatuta.

2. Salaketak aurkezteaz gainera, zilegi izanen da ikuskatzailezari eskatzea egiazta dezala foru dekretu honetako arauak betetzen diren, dela bertan aipatzen diren zerbitzuak emateko kontratu edo itunen jarraipen batzordeetan ordezkatuak dauden sektoreen bitartez, dela foru dekretu honetan aipatzen diren zentro eta zerbitzuetako partaidetza kontseiluetan edo antzeko organoetan ordezkatuak dauden sektoreen bitartez. Bi bide horiek, bai eta bestelako bide irisgarriak ere, erabili behar dira, beti ere, pertsonen kontrako indarkeria edo tratu txarren kasuren baten berri izaten denean, adinagatik, pobreziazatik edo gizarte-bazterketa egoeran egoteagatik, adingabeak izateagatik edota desgaitasuna edo nahasmendu mentala duen pertsona izateagatik.

3. Ikuskatzaileak jendaurrean jarriko ditu bere planak eta egindako ikuskapenak, bai eta kalitate-ebaluazioen emaitzak eta trantsiziorako edo foru-dekretu honetan ezarritako arreta-eredura egokitzeko planak ere.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ere ematen du laguntza-jarduera zentro horietan, bai zerbitzu komunak zorroari dagokiona, bai oinarritzko osasun-barrutietako osasun-etxeek erabiltzaileen arretarako ematen duten laguntza eta indartzeari dagokiona, lanaldi arruntean eta larrialdi zerbitzuetatik. Jarduera horren bidez irregularitasunak eta osasun arloko araudiaren nahiz araudi orokorraren urraketak detektatu dira.

Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten ditut:

– Osasun arretaren arloko zenbat irregularitasun eta gabezia detektatu dira egoitza horietako erabiltzaileei arreta ematerakoan 2022an eta 2023a hasi zenetik orain arte?

– Zein egoitza-zentrotan detektatu dira irregularitasun eta gabezia horiek, horietatik zeinetan zuzendu dira eta zeinetan gertatzen dira oraindik ere?

– Irregularitasun eta gabezia horiek jakinarazi al zaizkio dagokion departamentuari? Zer neurri hartu dira horiek konpontzeko?

Iruñean, 2023ko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

11-23/PES-00177. Galdera, zahar-etxeetan osasun-laguntzaren arloan atzemandako irregulartasunei eta gabeziei buruzkoa

JAVIER ARZA PORRAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Arza Porrask jaunak egindako galdera, zahar-etxeetan osasun-laguntzaren arloan atzemandako irregulartasunei eta gabeziei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintukoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrask, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

92/2020 Foru Dekretuak, batetik, Nafarroako Foru Komunitateko gizarte zerbitzuen sistemaren barruan, egoitza zerbitzuen, eguneko zerbitzuen eta zerbitzu anbulatorioen funtzionamendua arautzen du adinekoen, desgaitasuna dutenen, eritasun mentala dutenen, adingabeen arretan eta gizarte-inklusioaren arloetan, eta bestetik, baimeen, aurretiazko komunikazioen eta homologazioen araubidea. Eta 46. artikuluan –Ikuskapena–, honako hau dio:

1. Foru dekretu honetan ezarritakoa betetzen dela bermatzeaz gainera, aurreko tituluetan adierazitako jarduketekin batera, Nafarroako gizarte zerbitzuetako ikuskatzaitzak uneoro kontrol lanak, aholkulari lanak, eskaerak eta zehapen

prozedurak irekitzeko proposamenak eginen ditu, hala ofizioz, bere urteko planen arabera, nola alderdi batek eskatuta.

2. Salaketak aurkezteaz gainera, zilegi izanen da ikuskatzaitzari eskatzea egiazta dezala foru dekretu honetako arauak betetzen diren, dela bertan aipatzen diren zerbitzuak emateko kontratu edo itunen jarraipen batzordeetan ordezkatuak dauden sektoreen bitartez, dela foru dekretu honetan aipatzen diren zentro eta zerbitzuetako partaidetza kontseiluetan edo antzeko organoetan ordezkatuak dauden sektoreen bitartez. Bi bide horiek, bai eta bestelako bide irisgarriak ere, erabili behar dira, beti ere, pertsonen kontrako indarkeria edo tratu txarren kasuren baten berri izaten denean, adinagatik, pobreziagatik edo gizarte-bazterketa egoeran egoteagatik, adingabeak izateagatik edota desgaitasuna edo nahasmendu mentala duen pertsona izateagatik.

3. Ikuskatzaitzak jendaurrean jarriko ditu bere planak eta egindako ikuskapenak, bai eta kalitate-ebaluazioen emaitzak eta trantsiziorako edo foru-dekretu honetan ezarritako arretara egokitzeko planak ere.

Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten ditut:

– Osasun arretaren arloko zenbat irregulartasun eta gabezia detektatu dira egoitza horietako erabiltzaileei arreta ematerakoan 2022an eta 2023a hasi zenetik orain arte? Nolakoak?

– Zein egoitza-zentrotan detektatu dira irregulartasun eta gabezia horiek, horietatik zeinetan zuzendu dira eta zeinetan gertatzen dira oraindik ere?

– Irregulartasun eta gabezia horiek jakinarazi al zaizkio dagokion departamentuari? Zer neurri hartu dira horiek konpontzeko?

Iruñean, 2023ko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: Javier Arza Porrask

11-23/PES-00178. Galdera, AUNako proiektu pilotuarekin sortutako kontratuei buruzkoa

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, AUNako proiektu pilotuarekin sortutako kontratuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zer kontratu mota sortu dira AUNAn kokatutako proiektu pilotuarekin? (batez besteko iraupena, sektorea, eta abar)

Iruñean, 2023ko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

11-23/PES-00179. Galdera, AUNako proiektuaren baitan errenta bermatuaren hartzaile diren pertsonen zuzendutako proiektu pilotuko hautaprosesuari buruzkoa

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, AUNako proiektuaren baitan errenta bermatuaren hartzaile diren pertsonen zuzendutako proiektu pilotuko hautaprosesuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

- Nola hautatu dira, AUNA proiektuaren barruan, errenta bermatua jasotzen duten pertsonentzat departamentuak duen proiektu pilotuko 500 pertsonak?

- Zer gertatu da departamentuaren proiektu pilotuan parte hartu eta lan merkatuan sartzerik izan ez duten 309 pertsonekin?

Iruñean, 2023ko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

11-23/PES-00180. Galdera, Nafarroako Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak urriaren 31ko agerraldian egindako adierazpenei buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Nafarroako Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak urriaren 31ko agerraldian egindako adierazpenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

1.- Nafarroako Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak, pasa den urriaren 31n eginiko agerraldian, esan zuen parlamentari honek "iraindu egin zituela Bartzelonan etxebizitza publikoaren alde lan egitetik zetozen kideak". Zertan oinarritu zen baieztapen hori egiteko? Zer irain adierazi zizkien parlamentari honek kargu horiei? Irainik ez bazen izan, publikoki zuzenduko al du bere baieztapena eta bilkura-egunkaririk kentzeko eskatu?

2.- Agerraldi berean esan zuen Etxebizitza Departamenturako fitxatutako kargu horiek "ahal duten guztia eginen dutela Nafarroako gazte gehienek etxebizitza eskuragarri eta publiko bat eskura dezaten, UPNk inoiz egin ez zuena, etxebizitza publikoaren espekulazioa ahalbidetu baitzuen, eta oraindik ere horren ondorioak pairatzen ditugu". Zer datutan oinarrituta dio UPNk ez zuela inoiz ahalbidetu Nafarroako gazteek etxebizitza eskuragarri eta publiko bat eskuratzeari? Zer froga ditu esateko UPNk etxebizitza publikoaren espekulazioa ahalbidetu zuela eta oraindik ere horren ondorioak pairatzen ditugula? Froga horien kopia jaso nahi dugu.

Iruñean, 2023ko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-23/PES-00181. Galdera, Tokiko Gazte Politika Koordinatzeko Batzordeari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa EcheGARAY jaunak egindako galdera, Tokiko Gazte Politika Koordinatzeko Batzordeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa EcheGARAY jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

1.- Tokiko Gazte Politika Koordinatzeko Batzordea iazko uztailean eratu zen, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta Nafarroako toki entitateen arteko lankidetzako organo gisa, tokiko gazte politikak koordinatu eta bultzatzeko. Batzorde horrek egin al du osoko bilkura-rik?

2.- Osatu al dira berriazko batzordeak? Bilkurarik egin bada, zer gai aztertu dira?

Iruñean, 2023ko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa EcheGARAY

11-23/PES-00182. Galdera, Gazteriari buruzko Foru Lege berriari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa EcheGARAY jaunak egindako galdera, Gazteriari buruzko Foru Lege berriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko azaroaren 6n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa EcheGARAY jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

1.- Zer epe aurreikusten da Gazteriaren Foru Lege berria Nafarroako Parlamentura ekartzeko?

2.- Zer aldaketa egingen zaizkio indarrean dagoen testuari eta zer eduki berri sartu nahi dira?

Iruñean, 2023ko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa EcheGARAY

11-23/PES-00183. Galdera, Baztango gazteen aterpetxeko pumptrack-pistari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Baztarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Baztango gazteen aterpetxeko Pumptrack-pistari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

– Valle de Baztán Gazteen Aterpetxeari dago-kionez, zertan da “Valle de Baztán Aterpetxeko lehengo igerilekuan pumptrack pista bat jartzea” partidaren betetze-maila? (2022ko aurrekontuetako zuzenketa, Geroa Baik aurkeztua, 60.000 eurokoa).

Iruñean, 2023ko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-23/PES-00184. Galdera, Altsasuko gazteen aterpetxeari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Baztarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Altsasuko gazteen aterpetxeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zer gertatu da Altsasuko gazte-aterpetxearekin? Zergatik desatxiki zen Nafarroako Gazteriarren Institututik 2022ko martxoan eta harrezkero ez dago haren menpe?

Iruñean, 2023ko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-23/PES-00185. Galdera, gazteriaren arloko politiken garapena finantzatzeari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, gazteriaren arloko politiken garapena finantzatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zuen ustez, zer da “finantzaketa nahikoa”, gazteriaren arloko politikak garatzeko bidea eman duena edozein dela ere egoera ekonomikoa, programa-akordioan jasotzen den moduan?

Iruñean, 2023ko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-23/PES-00186. Galdera, Gazteriako zuzendariorde nagusiaren postuari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Gazteriako zuzendariorde nagusiaren postuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

1.- Zeintzuk dira arrazoiak eta beharriak, justifikatzen dutenak Nafarroako Gazteriaren Institutuak legegintzaldi honetan Gazteriako zuzendariorde nagusiaren postua bete izateko?

2.- Postu hori zergatik bete da kanpoko pertsona batekin eta ez administrazio publikoko funtzionario batekin?

Iruñean, 2023ko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

11-23/PES-00187. Galdera, COVID-19aren osasun-krisiak eragindako inpaktuari erantzute aldera langile autonomo laguntzaileei emandako laguntzei buruzkoa

ANA MARÍA ELIZALDE URMENETA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Elizalde Urmeneta andreak egindako galdera, COVID-19aren osasun-krisiak eragindako inpaktuari erantzute aldera langile autonomo laguntzaileei emandako laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako Ana Elizalde Urmeneta andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariaren maiatzaren 13ko 17/2020 Foru Aginduak ezartzen du langile autonomo laguntzak emateko prozedura, koronabirusaren (COVID-19) osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko premiazko neurriak onesten dituen apirilaren 15eko 3/2020 Foru Dekretuan araututakoa betez.

Foru agindu horretan oinarrituta, langile autonomo laguntzaileek laguntza horiek eskatu zituzten, eta eman egin zitzaizkien. Halere, orain dela gutxi, Nafarroako Gobernua laguntza horiek itzultzeko eskatzen ari zaie, deialdian ezarritako baldintzak betetzen ez dituztelakoan.

Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dugu:

– Deialdian oinarrituta eskatutako eta emandako laguntza-kopurua.

– Langile autonomo laguntzailearen figuraren arabera aurkeztutako eta onartutako eskabideen kopurua.

– Itzultzea eskatutako eskabideen kopurua, langile autonomo laguntzaileen kasuan, bai eta itzultzeko eskaria egiteko arrazoiak ere.

Iruñean, 2023ko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: Ana Elizalde Urmeneta

11-23/PES-00188. Galdera, proiektu bat foru erkidegoaren interesekoa dela aitortzeko orduan Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak darabiltzan irizpideei buruzkoa

ANA MARÍA ELIZALDE URMENETA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Elizalde Urmeneta andreak egindako galdera, proiektu bat foru erkidegoaren interesekoa dela aitortzeko orduan Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak darabiltzan irizpideei buruzkoa buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2023ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako Ana Elizalde Urmeneta andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak zer irizpide darabil aitortzeko proiektu bat foru erkidegoaren intereseko inbertsioa dela Enpresa edo lanbide jarduerak abian jartzeko xedearekin administrazioa errazteko neurriei buruzko abenduaren 9ko 15/2009 Foru Legearen 4. artikuluan ezarritakoarekin bat?

Iruñean, 2023ko azaroaren 2an

Foru parlamentaria: Ana Elizalde Urmeneta

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Foru parlamentarien ordainsariei buruzko arauak aldatzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko azaroaren 6an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2023ko urriaren 23an, Mahaiak eta Eledunen Batzarrak Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuari agindu zioten, legelari nagusiaren bitartez agindu ere, Foru-parlamentarien ordainsariei buruzko Araua aldatzeko aukera azter zezan.

Agindu horri erantzunez, Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak Foru-parlamentarien ordainsariei buruzko Arauen 9.4 artikulua aldatzeari buruz egindako txostena aurkeztu du legelari nagusiak, aldeko iritzia adierazita.

Dokumentazioa aztertu ondoren eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 17. artikulua ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Foru parlamentarien ordainsariei buruzko arauen 9. artikuluko 4. idatz-zatia aldatzea. Honako testu hau izanen du aurrerantzean:

"9.4. Iruñetik kanpo bizi diren foru parlamentariak ordaina jasoko dute deituak diren parlamentu-bilkuretara etortzeagatik ordaindutako lokomozio-gastuengatik, bai eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak baimendutako eta egoitza barruan egiten diren ekitaldi instituzionaletara etortzeagatik egindakoengatik ere, ekitaldi horietara gonbidatuak badira. Hala, hiler, eguneko kilometroei dagokien zenbatekoa ordainduko zaie, eguneko kalteordain bat gehienez ere. Bizilekutzat hartuko da kasuko foru parlamentaria erroldatuta dagoen udalerria".

2. Arauak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-23/ELC-00010. Nafarroako Parlamentuak Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikorako izendatu beharreko bi kide hautatzea

HAUTAGAITZAK ALDARRIKATZEA

2023ko azaroaren 6an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuak Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikorako izendatu beharreko bi kideak hautatzeko arauekin bat, zeinak 2023ko urriaren 23ko Mahaiko erabakiaren bidez onetsi baitziren (25. NPAO, 2023-10-27koa), honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Nafarroako Parlamentuak Memoria Historikoaren arloko Koordinazio Batzorde Teknikorako izendatu beharreko bi kideak hautatzeko hautagai gisa honako pertsona hauek aldarrikatzea:

– Juan Frommknecht Lizarraga jauna, Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak proposatuta.

– Pedro Rascón Macías jauna, Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak proposatuta eta

– Irantzu Zabalza Aguirre andrea, Geroa Bai talde parlamentarioak proposatuta.

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei helaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2023ko azaroaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

J saila:
PONENTZIAK

11-23/PON-00004. Ponentzia bat sortzeko proposamena, lanaldien eta ordutegien arrazionalizazio-politikak bultzatzeko denboraren erabilerrak aztertzeko

ESKUBIDE SOZIALETAKO, EKONOMIA SOZIALEKO ETA ENPLEGUKO BATZORDEAK EZETSI DU

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Batzordeak, 2023ko azaroaren 7an egindako bilkuran, ezetsi zuen ponentzia bat sortzeko proposamena, lanaldien eta ordutegien arrazionalizazio-politikak bultzatzeko denboraren erabilerrak aztertzeko. Proposamena EH Bildu Nafarroa eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkeztu zuten.

Iruñean, 2023ko azaroaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias
